

egunekoa

Koldo Izagirre

(Idazlea)

Izarren hutsa

Zoragarria izanen litzateke, bai, baina... Baina baldintzak aldatzen ez diren artean, ezinezkoa omen da. Urtean behin inoiz baino mundu-tarragoa izan nahi duen Donostia izartzale honetan John Wayne azaldu zaigu —kapelua buruan zapia lepoan Colt-a gerrian— web ofizialeko irudi eta zabaltze ekitaldiko laburmetraiaren protagonista. Bera da aurtengo zinemaldiko ikurra. Edertasun guztiak uxatzen dituen txorimaloa dela John Wayne uste izan dut nik beti, egia erreakzionarioen filme bakarra errepikatzen duen misionista. Baina oker nago, baldintza hauen modernitatea ulertzen ez duen indioa naiz. Kulturaren aurrekontuetarik elikatzen den zinemaldi batek John Wayne aldarrikatzen baldin badu, zertan harritu behar naiz Angel Amigo eta Montxo Armendariz hartuko badituzte euskal zinemari eskainitako egunaren protagonista? Hain zuzen, sekula ez bezala handitu zait zinemaldi honi hemendik ematen zaion dirua euskal zinema ez egiteko dirua delako susmoa.

Zoragarria izanen litzateke egia ez balitz.

John Wayne abertzale handiak jukutria guztiak erabili zituen Bigarren Mundu Gerran tiro bat bera ere jo eta hartu behar izatetik libratzearen. Gero, bere koldarkeria zuritze alde, John Wayne pertsonaia bihurtu behar izan zuen John Wayne

aktoreak Hollywood-eko lankideak salatuz (MacCarthy aroa), mexikarraren historia irainduz (*El Alamo*), VietNam-eko gerrara dei eginez (*Txapelberdeak*)... Ez, hila ez egotera ere ez zen in person azalduko gurean, bere etxean geldituko zatekeen hegazkin bahitzaileen beldur, morroia. Doble bat izanen zen, orain bezala, gure karrketan zamalkatuko zatekeena publizitarioek filma zezaten edo zinemaldiko arduradunek ezproiak garbi ziezazkioten. Julie Andrews eta Warren Beatty ez etorriak bakarrik izargabetuko duela zinemaldia? Horixe salduko digute.

Zoragarria izanen litzateke baldintza hauek ez bagintuzte lotzen.

Lehen filmeak zeuzkaten yankiek, gero filmeak eta banatzaileak eduki zituzten, orain filmeak, banatzaileak eta aretoak dauzkate, eta laster —asmatua dago— satelite bidez ematen dute filme bakarra mundu osorako aldi berean. Horretara heldu da John Wayne Europara, banatzaile eta filmemaile independenteak jakinaren gainean jartzera, Warner & Cia.ren interesei aurre eginen dien oro demokraziaren etsai bilakatuko dela gaztigatzera. Zinema europarra? Zinema afrikarra? Zinema latinamerikarra? Egile zinema? Ereku urriko hizkuntzen zinema? John Wayne indio izatearen krimena salatzen etorri zaigu, horretarako gomitatu dutela dirudi gainera, zeren...

Zoragarria izanen litzateke gure

satelitea geu ez bagina.

Zoragarria izanen litzateke, bai, filme batek lehiatu ahal izanen balu inoiz euskaraz sail ofizialean, amets bat. Zinemaldiko zuzendariaren beraren hitzak dira, kazetari bipilaren galderari arrapostuz. Baina ezinezkoa deritza, hirurehun milioi pezeta behar direlako gutienez filme baten egiteko, eta gure merkatuak... Euskarak ez dituela hirurehun milioi merezi, alegia; alegia, euskarak ez duela balio mundurako. Hori uste du Donostiako zinemaldiko lehen zuzendari euskaldunak. Horretara ere etorri baita John Wayne Euskal Herrira, gure memoria ezabatzen ere etorri da: duela hamabi urte, hirurehun milioi baino askoz diru gutiagorekin euskaraz egindako filme bat lehiatu zen Donostiako sail ofizialean. Goizeko ordu biak arte egon zen irabazle epaimahaikoen fitxetan.

Zoragarria izan zen, bai.

Baina batzuek ez dute ametsa egia bilakatu zen hartaz oroitzapenik. Edo gogoan baldin badaukate Antxon Ezeizak euskaraz aurkeztu zuela bere filma (*Ke arteko egunak*) nazioarteko zinemaldi honetan, ez dute aitortu nahi: ez zen huraxe, menturaz, amesten zuten filma. Menturaz sinetsiak daude John Wayne ez den guztia ez dela zinema.

Ez baitago ukatzerik John Wayne oso dotore egiten duela narrantan bere behorreakin. Marlene Dietrich-ek esana.

zutabea

Menane Oxandabaratz



Begia noraino, gogoia haraino...

Azken astean anitz aipu da Estatu Batuetan iragan gertakaria. *Ekaitza* astekariak agertzen zuen astearte horretan bertan, marrazki bat. Hor prefetate eskatu dio prokuradoreari inkesta bat eramaita, terrorismoaren apologia egiteagatik. Aldi bat gehiago, boteredunek erakusten daukute, abertzale prentsari buruz duten jarrera. Aldi bat gehiago, frantses prentsak albiste hori harturik, egun osoan beren irratieta botate berria: «Pirineo Atlantikoetako prefeta batek abertzale prentsa baten kontra...». Aitzakia guziak onak dira, euskaldunen zikintzeko edota isilarazteko.

Memento berean, anitz presuna bezala, segitu dut, prentsaren bidez Ipar Ameriketara gertatzen zena. Hor senditu dut manipulazio handi bat bereziki frantses telebista begiratzerakoan. Irudi sentimentalak, jendea bere burua botatzen edota hegazkinean zen presuna bat bere hurbileko familiari telefonatzen. Horrek bistan dena denak hunkitzen gaitu eta ororen buru dotpatzen gaitu sendimendurekin baitira jokatzen. Horrekin batera, araben aurkako manipulazio bat senditu dut, denak zaku berean ezartzen dituztela. Beldurgarria eta lanjerosa. Populazio bat bestearen aurka ezartzea. Hori ez ote dea terrorismoaren edo arrazakeriaren apologia egitea? Beldurra emaiten du, zeren zombait egunez jendeak bakarrik hilak gogoan baitzen eta ez baitzuen batere edo gutti salatzen amerikanoen politika bai munduan zehar merkatalgintzan, bai eta berek zombait eta zombait jende hil dituzten beren armekin. Zombait jende ez da hiltzen multinazionalen politikaren ondorioz gosez. Horiek guziek gogoeta bat eginarazten dautate. Nork du boterea? Arduradun politikoe? Munduko merkatua beren esku dutenek? Eta prentsak zer eragin du? Bere ardura zoin da? Eta hiru botere horien artean ze lotura da? Galdera horier erantzuteak ez du ezer irabaziarazten... bakarrik burmuinak lerdan atxikiarazten!

udamina

Pako Aristi



Gero arte

Aste honetan irakurri dut zikonei gero eta gehiago kostatzen zaiela Espainiako lurretatik joatea. Hamarretik hiru bertan geratzen omen dira. Gero eta epelagoa den eguraldiak alferatu egin ditu. Joan-etorriarekin urtaroen aldaketak adierazten zituen hegaztia laster urte osoan etxeko izango omen da.

Niri, aldiz, hegaldatzeko ordua iritsi zait. Udazkenean sartu gara eta ezin dut «udaminez» deituriko leku batean idazten jarraitu. Eta ez da berorik aurkitu ez dudalako. Hainbatek deitu edo idatzi didazue, zorionak emanez edo artikuluoak aportatu diuzetena kontatuz. Ez dakizue idazleak nola eskertzen duen hori, animo hitzak txirindulari, futbolari edo pelotariatzat ezik hain urri banatzen dituen herri honetan. Denok afaltzera gonbidatuko bazintuzket, arruinatuko nintzateke.

Ez dut leku honetan agertzeko pribilegioa alferrik hondatu

nahi. Pribilegio bat baita egunkariak (eta irratiak, eta telebistan) leku bat edukitzea, eta gehienetan pribilegio hori txorakeriaz, arinkeriaz eta inkompetentziak hondatzen dugu. Izan ere, gaur egun idazleari ez zaio sakontasunik eskatzen, okurrentea izatea baizik; kazetariari ez zaio informatzea eskatzen, dibertitzea baizik.

Nik zoriontasuna nola iritsi erakutsi nahi nizuen, baina oraindik ez dut aurkitu duela 2.500 urte Chuang Tzu txinarrak idatzi zituen hitzen erantzunik: «Ez dakit jendeak zoriona esaten dion hori zoriona den ala ez. Baina horren atzetik ikusten ditudanean, burumakur arrastaka dakuskit, besteena egin beharreakin obsesionatuta. Eta etengabe diote gutxi falta zaiela zoriona iristeko. Nire iritziz, zorionik ez da aurkitzen zoriona bilatzeari utzi arte».

Ez dut lortu heldutasun nahiko, Francisco Brines-ek bezala esateko: «Azkenean, memoriaren bidez badakizu bizitzak ezer berezirik gertatzen ez den egun zoriontsu asko eskaintzen dizkizula».

Gertaerak aztertu ditut. Eta halere, gauzarik garrantzitsuenak esan ez ote dizkizuedan sentipena daukat. Goethek zioen ekin-tzetan dabilen gizakiak ez daukala kezkarik; begira dagoenak soilik daukala kontzientzia. Begirale hori izan naiz ni asteotan; ez dakit zelako fortunaz baina. Berdin dio. Errioxako botila on bat irekiko dut, zuen guztion omenez edateko, ordenagailuaren argia itzaltzera noan une honetan.

Gero arte. Hurrengo liburuan ikusiko dugu elkar.

kornerra

Mikel Elorza

Hitzak

Hirugarren Mundu Gerra izen egokia izan daiteke, ez gerrari dagokionez —noiztik gerra armada bakarrarena?—, Hirugarren Munduari dagokionez baizik. Misilen aurretik, hitzak beldurgarriak dira. EBko buruzagiek EEBBei eraso orokorrek ez, *hautatuak* egin ditzaten eskatu diete. Eztarrira igo zaizkit hemen aipa ez ditzakedanak *hautaketak* imajinatzean. George Bushen azken agerraldiko onenak ere *jan* ditut eta latza da esaldi goren: gurekin zaude edo terrorismoarekin zaude! («Txalo sorta gogor baina hunkibera», litzateke akotazioa). Beren justizia mugagabea da eta hitzak biblikoak. Nork bere erantzuna prest izanen du, baina osagarri irakurketa bat gomendatu nahi dut. Nik ingelesez eta Internet bitartez ezagutzen dut (www.nizar.net), orain 3 urte zendutako Nizar Qabani poetaren *I am with terrorism* poema. Hitzak beraienak bakarrik ez dira.